


berriak Triforio-tik



143 Zkia.
2025eko azaroa

araba
álava



25
URTE

Duela 25 urte...

Denbora azkar igarotzen da, eta, askotan, memoriak nahastu egiten gaitu. Santa Maria Katedrala Fundazioan, batzuetan iruditzen zaigu gauzak gerta zitezkeen modu bakarrean gertatu direla. Errealitatea, ordea, bestelakoa da; izan ere, erabaki ausartak, lortutako lorpenak, egia bihurtu diren ideiak eta, arrazoï desberdinak medio, bidean geratu diren beste batzuk ere izan dira.

Katedrala hainbat urtez itxita egon ondoren, berreskuratze beharra sortu zen, eta, horretarako, **asmo handiko Plan Zuzentzaile** bat egin zen hedapen tekniko eta zientifiko handiarekin. Planean planteatutako helburuak lortzeko, ezinbestekotzat jo zen **Santa Maria Katedrala Fundazioa eratzea, Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta hiriko Gotzaindegia**ren arteko lankidetzaren irimoi esker, katedrala lehengoratu eta jarduera guztia eraikin enblematiko horri itzultzearen. Hasiera-hasieratik, **Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren laguntza** ere izan zen.

>> Lehen urtea

Ibilbideko lehen urte hartan, bisita gidatuak oraindik ez ziren martxan jarri, Fundazioak ez zuen web orririk eta Fundazioaren bulegoak Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia eta Historia Fakultatean zeuden behin-behinean. Katedralaren barruan bi sektore bakarrik induskatu zirenez, eraikinaren zatirik handiena induskatu gabe zegoen. Ikasle bakar batek ere ez zuen Katedral Zaharrean barrena ibiltzeko aukerarik izan, eta, jakina, Ken Follettek oraindik ez zuen Katedralaren berri izan.



>> 2000 Urtea

- ▶ **Ekainaren 22an**, *El Correo* egunkariak iragarri zuen **katedralak uztailaren 3an irekiko zituela ateak, birgaitze-lanak zabaltzeko**. Oraindik ez zegoen "Obretan eta irekita" esloganaren arrastorik. **Bisita horiek urrian amaituko ziren**.
- ▶ **Ekainaren 25ean**, *El Mundok* jakinarazi zuen **katedralak Sortzaileen Zirkulu bat sortuko zuela, enpresen eta herritarren ekarpenekin**.
- ▶ **Uztailaren 10ean**, *Egunkariak* orrialde bat eskaini zion katedralari: "**Santa Mariaren berriztatzea Gasteiz hiriarren garapena ezagutzeko tresna bihurtu da**"; Plan Zuzentzailearen balioa nabarmentzeaz gain, zaharberritzea "**ateak zabalik**" izango zela azaldu zuen.
- ▶ **Uztailaren 20an**, bisitak arrakastatsuak zirela ikusita, *El Periódico de Álavak* iragarri zuen "**Katedraleko obrak ezagutzeko bisitak azarora arte luzatuko zirela jendea interes handia erakusten ari zelako**, eta, ondoren, urtarillaren 7ra arte luzatu ziren.

Bitartean, plazan egiten ari ziren indusketak fruituak ematen ari ziren. *El Correo* honela jartzen zuen: "**Katedral zahararen aurreko tenpluaren buroaldearen zimenduak aurkitu dituzte**", eta *El Periódico de Álavan*: "**Santa Marian lanean ari den taldeak XIV. mendeko**

100 hilobi baino gehiago aurkitu ditu". Gara egunkariak berriz, honela iragarri zuen: "**Katedral Zaharrerako indusketek Santa Maria plaza osoa hartuko dute**".

Horrela igaro ziren uda eta udazkena, eta, eskaria handia zenez, bisitak gehitzen jarraitu zen. "**Katedraleko obrak ezagutzeko bisitak abenduak zubira arte luzatuko dira**", zioen *El Periódico de Álavak* **urriaren 25ean**.

El Mundok, berriz, **abenduaren 5ean** honela zabaldu zuen: "**Gasteizen egingo dira Espainiako kultura-arloko kudeaketari eta zaharberritzeari buruzko bi kongresu garrantzitsuenak**"; hau da, Kultura Ondarearen Kudeaketari buruzko Nazioarteko II. Kongresua 2001ean Villasuso Jauregian, eta Zaharberritzeari buruzko II. Biurtekoa, 2002an.

Lehen urte frenetiko hori Euskadin turismoa sustatzeko egindako lanarengatik **Eusko Jaurlaritzak emandako turismo-sariarekin** amaitu zen.



Eusko Jaurlaritzaren Turismo Saria.



IN MEMORIAM Joseba Cabezas

Urriaren 19an Joseba Cabezasek utzi gintuen. 2017az geroztik, une asko partekatu ditugu "Kontzertuan eta irekita" ekimenaren edizioak prestatzen eta garatzen. Musika-erikiko zuen izugarrizko grinak katedralean lan egiten dugun guztiok harrapatu gintuen.

Langile nekaezina, bizia eta maitagarria; hura ezagutzea opari bat izan da denontzat.

Betirako gure bihotzean

>> JARRAITZEKO ILUSIOA ETA ERABAKITASUNA

Geroztik gauza asko gertatu dira, baina erakundeen eta apezpikutzaren, urte hauetan zehar lan egin duen pertsona-taldearen eta herritarren ilusio eta erabakitazun irmoari esker berreskuratu du katedralak erreferente gisa hiriaren bihotzean duen lekua. Ahalegin kolektibo horri esker, Santa Mariak guztiontzako sinbolo bizia eta funtsezkoa izaten jarraitzen du, eta hala izaten jarraituko du.



Descubierta junto a Santa María la construcción más antigua de Vitoria

La excavación en la plaza de la catedral revela restos anteriores a 1200. Los arqueólogos hallan dos sepulcros nobles y 70 tumbas del siglo XIV.



Descubren los cimientos de la cabecera del templo anterior a la Catedral Vieja
Este hallazgo revela que la aldea de Gasteiz estaba más poblada de lo que se creía

El hallazgo de los cimientos de la cabecera del templo anterior a la Catedral Vieja, revela que la aldea de Gasteiz estaba más poblada de lo que se creía. Los arqueólogos hallan dos sepulcros nobles y 70 tumbas del siglo XIV.

La catedral de Santa María se convierte en un importante foco de atractivo turístico

Más de 23.000 personas han participado desde julio en las visitas guiadas al templo gótico y a las excavaciones arqueológicas.

Las visitas guiadas a la catedral de Santa María se han convertido en un importante foco de atractivo turístico. Más de 23.000 personas han participado desde julio en las visitas guiadas al templo gótico y a las excavaciones arqueológicas.



25
URTE